"Para repartir, primero hay que invertir". Ésa es la filosofía del Gobierno Municipal y sobre esa base se asienta la idea de crear suelo industrial para que ninguna empresa tenga que estar mirando fuera de las fronteras de Azkoitia, mientras que otras de fuera sí pueden reparar en nuestro pueblo como lugar idóneo para invertir. Tenemos una muy alta calidad de vida, así como una tasa de desempleo mínima. Pero el futuro se nos presenta amenazante. Es necesario ir hacia una diversificación económica que nos evite la dependencia a un solo sector productivo. Y la clave está en desarrollar un tejido empresarial de alto valor tecnológico que no nos haga caer del pedestal competitivo. Es el destino de Oiñartxo y Egino Berri, los nuevos polígonos industriales. En el primero, las obras para su adecentamiento están en marcha, y en el segundo, los trabajos comenzarán en breve. Está en pleno proceso de recuperación del antiguo vertedero. Ambos casos son ejemplo de políticas sostenibles, ya que se han recuperado los suelos contaminados para dar paso a una actividad económica.

Ambos polígonos suman 120.000 m². Es decir, supone un crecimiento de un 50% de suelo industrial existente hasta el momento.

Respecto a su ocupación, las perspectivas son más que halagüeñas. Varias empresas han acordado ya su traslado, mientras siguen las negociaciones con otras.



[Berrigunea: polo de innovación]

Azkoitia contará con un polo de innovación liderado por Iraurgi Lantzen en colaboración con las empresas del valle y con la participación, entre otras entidades, de Orkestra (Instituto Vasco de la Competitividad), Mondragon Unibertsitatea, Universidad de Deusto y Cidemco. Se trata de un centro con una unidad de I+D+i que estará al servicio de nuestras empresas para desarrollar diversos proyectos. Es una apuesta que aglutina la voluntad pública y privada. Una apuesta que coloca a empresas, núcleos de formación y centros tecnológicos en la misma dirección, para crear una dinámica permanente de desarrollo e investigación.

[Ampliación de Urola Ikastola]

El Gobierno Municipal impulsará la ampliación de Urola Ikastola en un nuevo edificio que albergue nuevos ciclos formativos y cubra el vacío existente entre la oferta de FP y la Universidad, adecuando las titulaciones –dirigidas a toda Gipuzkoa– a las necesidades que demande el mercado. Sería un factor de colaboración muy importante para el Polo de Innovación.



[Azkoitia, en breve en Google Earth]

kontzejupetik 10 9/1/09 16:22 Página 24

Ildo estrategikoen aurkezpena

Zuk zer diozu Azkoitiaren etorkizunari buruz?

Presenciaron el acto más de 140 personas

Jokin Sudupe

"Etorkizunak itxura ona du. Kanpoan ibiltzen garenok sarri esateko moduan, "baina, non nabil ni hain herri polita edukita?"

Inazita Puertas

"Ikuspegi zoragarria. Oso ona. Gure umeentzako laguntasuna da guzti hau. Etorkizun on bat Azkoitiarentzat eta horrek denon laguntza eskatzen du."

Marisol Arrizabalaga

"Hori guztia, proiektu horiek landu eta etorkizuna zer izango den pentsatzea bakarrik ez da gutxi!. Gureak egin du baina oso ondo dator etxean gazteak ditugunontzat."

Manu Oruesagasti

"Interesgarria iruditu zait. Non gauden eta nora goazen garbi azaldu du Asier Aranbarrik eta hori ondorengoei begira, oso positiboa da. Lan handia ari dira egiten."

Alfredo Lizarralde

"Ni ari naiz jada Google Earth-en saltseatzen. Txindokin sartu eta buelta osoa ikusteko modua dago. Oraindik Azkoitiko eraikinak ez dira hiru dimentsiotan ikusten. Ni azkoitiar peto-petoa naiz, joaten naizen tokian ez dut Azkoitia baxu utziko eta zoragarri ikusi ditut etorkizunerako dituzten proiektuak. Harro egoteko moduan gara. Laburregia egin zait aurkezpena. Lan asko egiten ari dira. Azkoitiak Azpeitiari ere aurre egin dio Udalak enpresentzat lursailak zituelako."

Jose Luis Ulazia

"Garrantzitsua da Azkoitiaren etorkizuna eraikitzeari begira, gure izaeratik abiatzen garela, alegia, pilota, euskara... horiek guztiak kontutan hartzea. Ideia interesgarriak aipatu ditu alkateak eta hiru aipatuko nituzke bereziki. Etorkinen integrazioa, Txalon Errekako babestutako etxeak alokairura ateratzeko asmoa, eta sektore industrialaren berrikuntza. Azkoitiak egurrera eta siderurgiara mugatu beharrean, balore teknologikoa duten enpresa berriak erakartzeko beharra du."

Itziar Arrieta

"Ondo planteatutako proiektuak daude. Eta Azkoitiak hori behar du. Asko egin du hobera Azkoitiak azken urteetan. Azkarra da gure alkatea gero!"

Itziar Izagirre

"Nik parte hartu nuen aurreko legealdian zenbait proiektutan eta oso ondo ikusi ditut Asier Aranbarrik aurkeztutako proiektuak. Asko hobetu da herria eta jendeak hori antzeman egiten du. Uste dut gainera kanpoan bizi diren azkoitiarrak gehiago sentitzen dutela hori bertan bizi garenok baino."

Patricia Goikoetxea

"Muy ambicioso para ser de Azkoitia. Es el resultado de una mentalidad muy moderna, actual, innovadora. Me ha llamado la atención porque es muy evolucionado. Con personas como Asier se pueden alcanzar muchas cosas. Tiene todo muy claro y muy pensado."

Nati Larrañaga

"Gehien harritu nauena da munduko edozein tokitatik Azkoitia ikusteko aukera interneten. Interesgarria. Eta gainera, gu lehenak! Ederra da hori! Ikusiko dugu zer ateratzen den guzti honetatik baina interesgarria dela deritzot. Alkatea ere berezia daukagu, asko balio du. Jende guztiak etorri beharko luke horrelako ekitaldietara."

Juanjo Etxeberria

"Ha sido muy buena la presentación. Conocía bastantes proyectos porque soy del equipo redactor de las Normas Subsidiarias y del Plan de Rehabilitación del Casco Histórico. Lo más importante es que el planeamiento de desarrollo ha ido en paralelo con el planeamiento general."

Iñigo Zubizarreta

"Ez nituen hainbeste proiektu espero. Elkargunea aspalditik martxan dago eta ezagutzen nuen, baina beste asko… Harritu nau ikusteak herria bizirik dagoela, gauzak egiten ari dira eta batetik edo bestetik hori ona da. Garrantzitsua da ez gelditzea ez aurrera ez atzera. Seinale ona da."

Luz Ibañez

"Herria aurrera beti joango da agintean dagoena dagoela. Lana denon partetik egiten da. Ez bat edo bestea dagoelako. Gauzak azaldu egin behar dira eta ondo dago baina apur bat hauteskundeetako propaganda izan dela esango nuke, amu bat. Heldua naiz engainatua izateko. Denon artean egin behar dugu aurrera."

Jaime Carretero

"En general, me ha parecido interesante la presentación. Me ha gustado, sobre todo, el concepto de la innovación y el de la integración, la idea de mantener a la gente en Azkoitia sin que tengan que verse en la necesidad de irse fuera."

Juan Beldarrain

"Realista pero muy ilusionante. Me ha parecido que el alcalde transmite muy bien la ilusión."

kontzejupetik 10 9/1/09 16:22 Página 26

Parte hartzea AZKOITIAN

Elisabet Arrieta
EHU-UPVko ordezkaria

Azkoitiak datozen urteetan erronka ugari ditu eta haiei aurre egiteko lan tresna garrantzitsu bat dauka: herritarren parte hartzea.

Parte hartzeaz ari garenean eskubide batetaz ari gara, herritarrek zuzenean edo zeharka dutena gai publikoaz aritzeko. Aldaketak suposatzen ditu eta politikari, teknikari eta hiritarren inplikazioa behar du aurrera eraman ahal izateko.

Esku-hartzea da bere ezaugarririk nagusienetariko bat eta helburua gizarte aldaketan datza. Sentsibilitatea beharrezkoa du eta banakako esparrua gaindituz taldeko proiektua bermatzen du. Gobernantzaren hobentzurako hezkuntza ibilbide bat da eta gauza asko dakar, alegia, aldaketa, herri bat eraikitzeko aukera berri bat eta motibazioa.

Elkarrizketa, elkar entzutea, bitartekaritza, gardentasuna eta metodoa derrigorrezkoak ditu.

Zenbait gauza berritu eta aldatzeko aukera bat da, izaera eta elkarbizitza tartean, talde kohesioa indartu egiten duelako, koordinazioa eta efikazia bultzatuz eta azken finean administrazioarekin elkarlana burutzeko bidea eraikiz.

Eta Azkoitian parte hartzeak baliabide propio izan nahi du, herritarrrak direlako atalik garrantzitsuena eta haiek bermatu dezaketelako, zeren ezin ahaztu, parte hartzeak praktika ezinbestekoa du. Modu honetan aukera paregabea daukagu: herritarrek azaldu beharko dute nolako Azkoitia nahi duen datozen urteetarako eta zer egin behar den hori lortu ahal izateko. Denen proiektua izan nahi du eta denak gara beharrezko.

Lurzoru Kutsatzaileen Kudeaketari buruzko jardunaldiak

Sprilur, Lurzoru Eraikuntza Industriaren Sustapenerako Sozietateak, eta Asmoz Fundazioak antolatuta, Lurzoru Kutsatzaileen Kudeaketari buruzko jardunaldiak egin berri dira Intsausti Jauregian, enpresei zuzenduta. Itxiera Asier Aranbarri alkateak eman zien. Argazkian, Asmoz Fundazioko zuzendari Luis Mari Zaldua eta Sprilurreko zuzendari gerente Jose Miguel Artazarekin.

48 entitatek eskuratu dute aurten Bai Euskarari Ziurtagiria

48 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek eskuratu dute aurten Bai Euskarari Ziurtagiria Azkoitian. Orain dela hiru urte eman zioten hasiera herrian euskararen normalizaziorako Bai Euskarari Akordioari. Orduz geroztik urrats esanguratsuak eman dituzte. Azken urtebetean bost entitate berrik eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria: Miren Olatz arropa konponketa, IDE osagarriak, Idurre osagarriak, Joyeria Gonzalo eta Arkupe. Hala, guztira 48 entitatek daukate Ziurtagiria. Euskal Herri osoan 1.500 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek baino gehiagok eskuratu dute dagoeneko Bai Euskarari Ziurtagiria. Guztira, 40.000 lagun baino gehiago dira Bai Euskarari Ziurtagiriaren eraginpean lanean ari direnak. Arlo soziokonomikoaren euskalduntzean eragiteko proiektu estrategikoa da Ziurtagiria; profesionala, independentea, gertukoa eta euskararen normalizazioa helburu duena.

Gaztezulo hilabetekaria, euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzeko

Azkoitiko Udaleko euskara zerbitzuak eta GAZTEZULO Euskal Herriko Gazteen Hilabetekariak, herriko gazteen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzearren, 2008-2009 ikasturtean martxan jarritako ekimenari aurten ere heldu diote.

Xabier Munibe Ikastola BHIko eta Floreagako Salestar Ikastetxeko DBH 4 mailako ikasleek hilabetero GAZTEZULO aldizkaria jasoko dute doan. Modu horretan, gure gazteek beraiei zuzendutako eta euskara hutsez idatzitako hilabetekaria ezagutzeko aukera izango dute, euskaraz irakurtzeko ohitura hartzea izanik helburua. Ekimena 2008ko azaroan hasi eta 2009ko apirilean amaituko da.

Azkoitiko Udalak bere gain hartuko du ikasle horien urte erdiko harpidetza. Apirilean, ikasleek azken alea jaso eta gero, GAZTEZULO beraiekin harremanetan jarriko da, aldizkariaren inguruko inkestatxoa egiteko eta urteko harpidetza eskaintzeko.

Valentín de Olano, gogoan

Azkoitiko Udalak Valentín de Olanori omenaldi xume bat eskaini dio bere jaiotzaren bigarren mendeurrenean. Zuzenbidean lizentziatua, Gorteetako diputatu izendatua izan zen 1839an Tolosatik. Foruen alde egindako defentsak sekulako ospea eman zion. 1851n hil zen. Azkoitiko Musika Plazan dago hain justu Azkoitian bere omenez 1951n jarritako eskultura.

kontzejupetik 10 9/1/09 16:23 Página 28

San Andresetan gozatu ederra hartu dute azkoitiarrek!

Euripean bada ere, festak gozagarri dira beti. Inor ez zen kikildu tanta batzuek gora-behera. Gorputzak hotz, bakoitzak ahal zuen moduan bilatu zuen berotasuna, taberna zokoetan, estalpeetan, lagun artean ondo estututa... Hamaika irudi utzi dizkigute aurtengo San Andresek.

Erreboteko frontoiaren inaugurazio ekitaldian.

San Andres jaiak bete-betean kaleak hartu aurretik, festa girora ohitzen joateko izan da aukerarik. Danborrada, esaterako. Ausart agertu ziren danbor-joleak. Behatz puntak izozterainoko hotzarekin eta aterkiaren babesik gabe atera ere. Bazuten arrazoi bat. Izan ere, aurtengoa 60.a zen. Napoleondarrak, sukaldariak, pilotariak… denek umorez hartu zuten eta hala jo zuten urtemuga ospatzeko hautatutako pieza ere, Candido Beristainen "Xoxote", alegia. Guztira, 400 bat lagun bildu ziren Balda Plazan festetako argazkirik politenetarikoa eskainiz.

Festek milaka aurpegi erakutsi dituzte. Kirol-zalea haietako bat. Gogoratu besterik ez dago aurten Raka Maraton Kirol Elkarteak antolatutako IV. Herri Lasterketan 501 lagunek hartu dutela parte eta Bernard Mwangi keniarrak marka berria ipini duela gainera. Izan ere, festetan denetarako denbora har daiteke. Besteak beste, aurresku txapelketaz edo artisau azokaz gozatzeko parada izan da. Dudarik gabe, parrandarako, egunik aproposena San Andres bezpera. Badirudi halakoetan gauak ohi baino ordu gutxiago dituela. Eta gero gaua luzea dela diote! Luzea agian arratsaldea Urolatarrak txarangakoentzat, termometroak oso gradu gutxi markatzen baitzituen haiek kalejira egin zutenean. Azken txanpan, San Andres egunean, besteak beste, protagonismoa Nazioarteko Pilota Etxeak bereganatu zuen. Erreboteko plaza inauguratu zuten erakunde ezberdinetako ordezkariek. Asier Aranbarri alkateak bidelagun izan zituen Carlos Ruiz, Kutxako Gizartekintzako zuzendaria; Juan Pablo Huércanos, Jorge Oteiza Fundazio Museoaren zuzendariordea eta Maria Jesus Aranburu, Kultura diputatua. Bertaratu zirenak ez zuten errebote txapelketaren finalaren lekuko izaterik izan. Eguraldi txarraren ondorioz, finalak bertan behera geratu ziren. Alabaina, errebote modalitatearen xehetasun guztiak emateaz Antton Mendizabal eskultorea arduratu zen. Jarraian, Antonio Oteizaren erakusketa eta bere izena daraman fundazioaren egoitza inauguratu ziren. Unerik hunkigarriena Antton Valverdek eskaini zuen, Jorge Oteizaren omenez bi kantu

Valverde, Antonio Oteizaren erakusketan.

abestu zituenean pianoa lagun. Parte hartu zuten guztiek Oteiza eta Oteizatarrak liburua jaso zuten.

Bitartean plazan, jo eta su, Goenatxo eta konpainia harri jasotzen. Neke gutxiagorekin, arkupeetan ehunka lagun txorixoa eta taloa dastatu nahian.

Hurrengo urtekoen zain geratu beharko.

kontzejupetik 10 9/1/09 16:23 Página 30

Esku artean duten proiektuak 86 lanpostu sortuko ditu

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasoko duten hamar enpresetako bat da Xubi

[Energia berriztatzaileen sektorerako produktu berri bat ateratzeko asmoa du. Proiektu hori diruz lagunduko du Jaurlaritzak, baldin eta aurreikusitako baldintzak betetzea lortzen badu.]

[Jaurlaritzak adierazi duenez, ez du edozein enpresa edo proiektu finantzatuko. Berritzaileak izan behar dute, balio teknologikoa dutenak eta negozio bide berriak urratzeko balio dutenak.]

[Proiektu berria martxan ipintzeko aurretik Xubi enpresak bere poltsikotik 33,4 milioiko inbertsioa egin beharko du, 86 lanpostu sortuz. Erronka horri aurre egiten badio, Eusko Jaurlaritzatik 2,34 milioi euro jasoko ditu.]

[Proiektu berri hau garatzeko, Oinartxo industrialdean 13.000 m²-ko lursaila hartu du.]

AITOR SUDUPE
Xubiko gerente adjuntua

"Krisiaren ondorengo marealdirako garrantzitsua da ondo prestatuta egotea"

Energia eolikoaren sektorerako beste produktu bat merkaturatze bidean da Xubi enpresa. Bere produktuak balio teknologiko handia du eta horretxegatik Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzeko aukeratu dituen hamar enpresetako bat da.

Hedabideetatik jakin dugu Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasoko duzuela, baina aurretik etxeko-lanak egin behar, ala?

Hori da. Guk oraindik ez dugu txakur txiki bat ere jaso. Guk nahi dugun proiektua aurrera ateratzeko gai izaten bagara eta, aurreikusita bezala, 86 lanpostu sortu, orduan emango digute diru-laguntza. Bost urteko epea dugu. Erronka handia da guretzako ere.

Espero zenuten Eusko Jaurlaritzak zuen proiektuarekiko erakutsi duen konfidantza?

Itxaropen handia genuen, Jaurlaritzak proiektuen berrikuntza maila eta nazioarteko bihurtzeko duen ahalmena baloratzen zituelako kasu honetan.

Eta proiektu horren zein fasetan zaudete?

Oso aurreratuta dugu. Makinak eskatuta dauzkagu produktu hori ateratzeko. Tokia era badugu. Oinartxon 13.000m²-ko lursaila hartu dugu eta produktu hori dominatzen duen teknologo bat ere kontratatu dugu. Udalak Oinartxoko industrialdea urbanizatzen duenean, gu eraikitzen hasiko gara. Gertatzen dena da irailetik hona berri txarrak baino ez direla entzuten. Aitak dio stand-by egoeran gaudela. Baina gu konbentzituta gaude eta apustu hori egin egingo dugu. Ea zer gertatzen den baina guk aurrera egingo dugu. AEBtan ere presidente berria dugu eta horrek sekulako eragina du. Pentsa, Obamak bere taldeko norbait izendatu eta burtsak gora egiten du!

Une zailetan inbertitu behar omen da, oparoaldian lehiakor izateko.

Momentu zailetan ere aukera asko egoten da. Krisiaren ondorengo marealdirako garrantzitsua da ondo prestatuta egotea. Beste aukera da erretiratzea baina gu lanean ohituak gara eta lana egin nahi dugu.

Zenbat urte daramatzazue esportatzen?

30 urte pasa. 1975ean hasi ginen Alemaniara eta Frantziara esportatzen. Orain Europa osoan gaude. Ameriketan, Mexikon eta Brasilen, eta Asiara ere saltzen dugu, Txinara. Baina hor daude Korea, Japonia, Hegoafrika, Errusia…

Orain bezala, krisi mundial bat ez bada gertatzen, dibertsifikazio geografikoak lagundu egiten du.

Hurrengo urtean, adibidez, Errusiara goaz meatzaritza azokara eta Brasilgo azukrearen ferira, zeren etanola azukretik ateratzen da. Hau etengabeko borroka da. Ezin da gelditu.

Mundua txikia da Grupo Xubirentzat.

Bai. Pentsa, gogoan dut behin Iranen feria batean nola igogailuan sartu eta aitak "egun on", eta tipo batek erantzun "kaixo, bai, egun on". Mundua txiki-txikia da.

> "Para desarrollar su nuevo proyecto, Xubi abrirá una planta de 9.000m² en el polígono de Oiñartxo. Creará 86 puestos de trabajo."

Zuek ere antzeman duzue krisiaren eragina?

Bai. Irailetik hona eskaeren sarrera jaitsi egin da eta jaisten doa.

Beharbada krisia ondo etorriko zaigu lan beharraz jabetzeko eta lanaren garrantzia ikusteko, ala?

Ondo ez dakit, baina bai lana gogor egin beharra dagoela gero ondo bizitzeko, eta ez alderantziz. Jendeak lehentasuna eman dio aisialdiari lanaren ordez. Bizi-kalitate oso ona dugu baina hau mantentzeko jabetu behar dugu lana gogor egiteko prest egon beharko dugula etorkizunean eta lana dela lehenengo eta gero ondorengoak. Alemaniarrak, adibidez, gu baino estuago bizi dira, ez dira hainbeste ateratzen jatetxeetara, e.a.

XUBI desde 1956

La empresa Xubi abrió sus puertas hace 52 años para producir engranajes. Hoy, el Grupo Xubi da cobijo a cuatro empresas que dan empleo a unas 150 personas. Xubi, Osatu y Esa están ubicadas en Azkoitia, mientras que Zuazo, nacido hace 25 años en Gasteiz, cuenta desde hace tres, con una nueva planta en el Parque Tecnológico de Miñano, donde fabrican husillos a bolas para el sector de la máquina-herramienta. El nuevo proyecto que tienen entre manos lo desarrollarán en el nuevo polígono de Oiñartxo. Crearán 86 puestos de trabajo más.

kontzejupetik 10 9/1/09 16:23 Página 32

“Parrokiko jaiotza klasikoa delako gustatzen da”

RAIMUNDO ALBERDI
Parrokiako Jaiotzaren egilea

Santu Guztien Egunean hasi ohi zen Raimundo Alberdi Azkoitiko Parrokiako jaiotza ipintzen. Azken 12 urteetan bera arduratu da hango Belena jartzeaz, xehetasun guztiekin. Aurten, lehendabizikoz, nahiago izan du beste batzuen esku uztea. “85 urte ditut eta gero eta zailagoa egiten zitzaidan bistako arazoengatik”, dio.

Zeure-zeurea duzu jaiotza hau.
Lehen etxean ipintzen nuen. Emazteari ez zitzaion asko gustatzen dena nahasten nuelako, baina gustatu egiten zitzaidan. Banituen hiru belaunaldiko figura txikiak eta orain parrokian jartzen dira. Txikiak izatean atzean jarri eta perspektiba ematen diote Belenari.

Zergatik uste duzu jendeari gustatzen zaiola jaiotza hau?
Klasikoa delako gustatzen da. Gaur merkatuan denetarikoak daude baina jendeak betikoa ikusi nahi du, hiru erregeak, gaztelua, artzaina ardiekin, txakurra, erreka…
Orain, nik esaten dut lardatsa dela eta izatez hala da. Gero dena osatutakoan

zerbait ematen du baina hurbiletik begiratuta nik akats asko bilatzen dizkiot.

Muntatzeko orduan, nola egiten zenuen?
Hiru gorputz ditu, hiru metro eta erdi osatzeko luzeran. Halere, agindu diet aurten jartzen aritu direnei, arotzen bat lortzen badut, lau zatitan jartzeko modua egin behar dugula, erraztearren. Makina bat kaskarreko hartutakoa naiz sartu eta irten!

Biltzen den dirua Afrikara bidali izan da, ezta?
Bai. Nire iloba bat misiolaria da Boli Kostan, Afrikan eta okurritu zitzaidan hara bidaltzea bildutako dirua eta hala egin izan dugu. Baina aurten Jaiotza bera dago eskean. Ukitu batzuk behar ditu. Hutsuneak bete egin behar dira. Aurten bildutakoa jaiotza hobetzeko izango da, elizarentzat behintzat.

Iaz ustekabeko bat ere izan zenuten.
Dirua lapurtu zuten. Burdinezko mahai astun baten gainean txapazko ontzi bat jartzen genuen eta hura behartu eta dirua eraman zuten.

Nolatan jaiotzekiko duzun afizio hau?
Nik Forjasen egiten nuen lan eta hango lagun batek sartu zidan zaletasuna. Hura hilabete lehenagotik hasten zen lanean eta erregeak pasa eta artean ukituren bat ematen zion. Nik behin argiak piztutakoan, kito esaten nuen.

Zure etxeko jaiotza ere ikustekoa izango da.
Etxean ez dut ipintzen. Bilobak hazten ari zaizkit. Orain arte laguntzen zidaten, baina txikienak 9 urte bete ditu eta…

Iraitz Legarra, Imanol Elias eta Itziar Aramendi dira Bizenta Mogel ipuin lehiaketaren irabazleak

Markina-Xemeingo Iraitz Legarra, Imanol Elias azpeitiarra eta Itziar Aramendi donostiarra dira Bizenta Mogel 27 Ipuin Lehiaketako saridunak. “Otsoaren ulua”, “Ezkutuko arma” eta “Malko bero bat” lanen egileak dira, hurrenez hurren. Epaimahaia 500, 330 eta 200 euroko diru-sariak banatzekotan zen baina azkenean 1030 euro horiek hiruren artean banatzea erabaki du. Maria Pilar Cuendek, Mikel Sudupek, Reme Larrañagak eta Patxi Alberdik osatu dute epaimahaia. Sari banaketa abenduaren 19an egingo da.

Gaztainak eta Olentzeroren etorrera

“Herrixen” Azkoitiko dendarien elkarteak primerako egitasmoa proposatu du hilaren 24rako. Gaztainak erreko dituzte danbolinean jendeari banatzeko, Olentzeroren bisitak tripa beteta harrapa gaitzan. Olentzerori ere ziur bisita atseginagoa suertatu zaiola.

Txotxongiloak, Enkarni Genuaren eskutik

San Andres jaietan Poxpolo, Mokolo eta Konpainia izan baziren Azkoitian, hilaren 20an, txotxongiloak izango dira Baztartxo Antzokiko oholtza gainean. Enkarni Genuak “Galtzagorri” ikuskizuna eskainiko du.



Azkoitiko VII. Gazte Astea

Oharrak

1. Ekintzetarako izen emate epea Abenduaren 19a izango da.
2. Kirol ekintzetarako derrigorrezkoa izango da, kirola egiteko arropa aproposa eramatea.
3. Kiroldegiko ekintzetarako derrigorrezkoa izango da, bertarako espreski oinetakoak eramatea, kalekoez gain.
4. Patata tortila egiteko taldeak bere zartagia, sardezka eta labana ekarriko ditu.
5. Ileapaindegi Lantegira ilea garbitu berria ekartzea komeni da, bustia ekarrita ere ondo.
6. Egutegi honek aldaketak izan ditzake. Hala izanez gero, parte-hartzaileoi jakinaraziko zaizue.

2008ko GABONAK

Urtarrilak 2 Ostirala	09:00-12:00 11:15-12::15 16:00-19:00	3x3 Saskibaloia Aerobik saioa Squash txapelketa	Kiroldegian Kiroldegian Kiroldegian
Urtarrilak 3 Larunbata	10:30-13:00 16:00-19:00	Patata tortila lehiaketa Ileapaindegi eta makilai lantegia	Kontzejupen GIBen
Urtarrilak 4 Igandea	10:00-12:30 10:00-12:30 16:00-19:00	Sukaldaritza tailerra Frontenis Txapelketa Mahai jolasak eta Play Station	GIBen Lanbide Eskolan GIBen
Urtarrilak 5 Astelehena	09:00-12:30 16:00-18:00	Futbito Torneoa Sari banaketa Afari merienda	Kiroldegian GIBen

Informazio telefonoa:
Gazte Informazio Bulegoan: 943 02 60 27 (Esther)

Zorionak eta Urte Berri On!

Udalak herritar guztiak zoriondu ditu

Azkoitiko Udalak azkoitiar zein Azkoitian bizi diren guztiak zoriondu ditu etxeetara postal bat bidaliz. Aurten irudirako erabilitako aitzakia Google Earth izan da. Izan ere, urtarrilaren 1etik aurrera Azkoitia munduko edozein txokotatik bisitatu ahal izango da.

Berriro ere, Zorionak eta Urte Berri On!

kontzejupetik 10 9/1/09 16:23 Página 34

“Sarritan haurren arazoen atzean bikote arazoak ezkutatzen dira”

Azkoitiko Haurreskolak antolatuta, umeek dituzten lo arazoen inguruko hitzaldia eman berri du Izar Arregik.

IZAR ARREGI
Psikologoa

Cuántas veces habremos oído que hay que aplicar la teoría del “Duérmete niño”. Sí, eso de dejarle al bebe llorando sólo en su habitación hasta que el sueño pueda con él. Es la teoría conductista, según explica la psicóloga Izar Arregi. Para algunos, es la fórmula ideal. Para otros lo habitual es dormir con sus hijos o hijas en la misma habitación e incluso en la misma cama. “Una teoría a la que yo llamo “hippy”. Los que la siguen sólo tienen en cuenta las necesidades de los hijos. Normalmente, las madres tendemos a una o a la otra”. Entonces, al nacer un hijo, la pareja pasa a ser un trío en la alcoba con todas sus consecuencias. También hay madres que duermen con los peques en la cama matrimonial. ¿El destino del padre? Una cama llena de peluches entre los que no pueden faltar Pirritx y Porrotx. La cuestión no pasa a más a no ser que en el fondo existan problemas de pareja. Muchos tocan la puerta del gabinete de Arregi con excusas varias hasta que la psicóloga descubre un problema más de fondo. No hay respuestas que valgan para todo el mundo. Cada familia es un mundo pero “lo primero es aplicar el sentido común”, dice.

Zure iritziz, kasu bakoitza aztertu behar da teoria bat edo beste aplikatzerakoan, ala?
Teoria konduktistak jarrerari begiratzen dio. Esaten du: gurasoek haurra bakarrik lo egitera ohitzen badute, bakarrik egingo du lo arazorik gabe. Gau txarrak ematen baditu, diziplina behar du. Gurasoen beharrei begiratzen die. Alegia, zer ordutatik zer ordutara nahi duzu umeak lo egitea? Horrela ikusita gogorra da. Egoera ikusi behar da. Batzuei oso ondo ateratzen zaie. Zer gertatzen da batzuetan? Lehenengo haurrarekin primeran atera zaien formula horrek ez diela balio bigarrenarekin. “Supernany”ren teoria da. Jarrera txarra du, ba zigortu. Ona, saritu. Ez ditu haurraren sentimenduak aintzat hartzen.

Eta kontrako teoriak, berriz, haurraren beharrak soilik hartzen ditu kontutan, ezta?
Beste muturrekoa da. Haurra beti besoan eduki behar dut kolikoengatik, kotxean ez du nahi eta beraz, lepoan, lo egin behar du beharra sentitzen duenean… haurrak kristalezkoak balira bezala hartzen dira. Eta amak nola edo hala horrela jokatzera eramaten ditu, eszedentziak hartzen dituzte, e.a. Egokia zer da? Egoera bakoitza ikusi egin behar da. Umeen beharrak kontutan hartzea ideala da baina amak lanera joan behar badu, ohitura batzuk txertatu behar zaizkio. Bigarren teoria hau jarraituta, askotan umeak gurasoekin hasten dira lo egiten eta ikusi behar da horrek bikotean nola eragiten duen. Distantzia bat sortzen da. Bikotea prest baldin badago sakrifizio hori egiteko –normalean, aita joaten da beste gelara– ondo. Bien arteko erabakia da. Eta bigarrena jaiotakoan, zer?

Zer gerta daiteke?
Ama geratzen da gelan bi haurrekin eta askotan egoeraren aurrean gain hartuta sentitzen da eta gizonari aurpegiratzen dio ez duela ezer egiten, zer edo zer egiteko eskatuz, haserre. Gizona ordezkatuta sentitzen da eta seme edo alaba zaharrena konturatzen hasten da bere aitaren lekua hartu duela. Horrek errudun sentiarazten du eta berriro hasten dira kasketak, jeloskorkeriak, ohean pixa egin dezake… Sentimenduak ez dira txuriak edo beltzak. Eguneroko gora-beherak dira eta horrelakoetan oinarrizko egitura bat beharrezkoa da. Arrazoitu egin behar da. Sen ona erabili. Askotan sentimenduek inbaditu egiten gaituzte. Ezin da juzgatu. Oso juzgatuta sentitzen gara amak, nahiz eta esan “aizan hi, bakoitzak ikusten din zer egin!”, eta egiten dugun hori justifikatzen hasten gara.

> “Azkoitiko Haurreskolak hurrengo hitzaldiak martxoaren 25erako eta ekainaren 17rako antolatu ditu”

Baina badirudi bikote arazoak ohean sortzen direla. Ez al gara komunikazio arazo batetaz ari?
Teoria reichianoak dio umeek gurasoekin egin behar dutela lo eta harreman sexualak ere haien aurrean izatea normala dela. Bikotekideak elkarrekin ondo badaude, bale, baina denok izaten ditugu krisiak eta orduan are eta distantzia handiagoa sor daiteke. Eta bai, komunikazio arazoa dago atzean. Ama batek, gizona lagunekin afaltzera joaten den bakoitzean esan dezake, “ba nik gaur alabarekin lo egingo dut. Senarra goizeko ordubietan etorri eta nigana goxo-goxo? Ba ez. Alabarekin egongo naiz”. Hor amaren behar bat dago. Eta bikotekideen arteko arazo bat.

Zenbateraino da garrantzitsua bakoitzaren rolak errespetatzea?
Oso da garrantzitsua. Ikasle bat irakaslearen mahaian esertzen bada, esan dezake, “tira, baina zer inporta zait ba?” Baina autoritatea jaten ari zaio. Eta horrek segurtasun ezak ekartzen dizkio haurrari. Gurasoekin, adibidez. Egoera horren aurrean, alde batetik, oso gustura egongo da, baina bestetik esaten du: “eta niri zerbait gertatzen bazait, -eta ni gurasoen pare baldin banago- nork babestu behar nau ni?”

Haurren lo arazoengatik jende asko etortzen al zaizu kontsultara?
Lo arazoengatik, ez. Normalean euren bizi-kalitatea kaltetuta ikusten dutelako etortzen dira. Dena lotuta dago. Ikusten dute estres batean bizi direla.

Nahi dugu gure seme-alabak izatea guapoenak, azkarrenak, atseginenak… ez al da hori?
Erabat. Azterketa batean bizi gara. “Ez al

den oindik oinez soltau?”, “zenbat pisatzen din hiriek?”… eta kuriosoa da baina nerabeen gurasoei galdetu noiz hasi ziren euren seme-alabak oinez eta askok ez dute gogoratzen. Haur bakoitzak prozesu bat du eta ez dugu errespetatzen. Lau hankan ibiltzen ikastea, adibidez, oso garrantzitsua da eta askotan geuk bultzatzen ditugu zuzenean oinez ikastera. Eta lau hankan ikasten dutenek, oinez beranduago ikasi arren, onura asko dituzte psikomotrizidade aldetik, gorputzaren dominioan… Gu beti gure eskemen arabera katalogatzen joaten gara.

Udalak Xabier Munibe Ikastolako jangela bikoiztu egin du

Egunero 180 haurrek bazkaltzen dute ikastolan. Aurten arte, toki ezagatik, bi txandatan ematen ziren bazkariak eta, zerbitzuaren kalitatea hobetze aldera, Udalak 127.000 euro pasa inbertitu ditu jangela bikoizten.

Geroz eta gehiago dira ikastolan bazkaltzen geratzen diren haurrak. Emakumearen laneratzearen ondorio garbienetako bat da. Xabier Munibe Ikastolan egunero 180 haur elkartzen dira jatordu garaian.
Iaz arte, bi taldetan banatzen zituzten haurrak, batera ez zirelako kabitzen. Horrek ere arazoak ekartzen zituen, askok eguerdi partea aprobetxatzen dutelako ingeleseko ikastaroetara edota Musika Eskolara joateko. Horri konponbidea jarri nahi izan dio Azkoitiko Udalak. Jangela 109 m²-koa izatetik 259m²koa izatera pasa da. Hau da, lehengoa bikoiztu baino gehiago egin da. Aurtengo ikasturtean estreinatu ahal izan dute txiki eta gaztetxoagoek. Jangela zabaltzeko jolastoki ondoko espazioa egokitu behar izan da. Bi komun berri eta haur txikienentzat logela gisa erabiliko den beste gela bat ere eraiki da.
Obretan Udalak 127.337,63 euro gastatu ditu.

kontzejupetik 10 9/1/09 16:23 Página 36

“Eguberri egunean 500 kilo gaztaina banatuko ditugu herritarrek bertako saltokiekiko duten leialtasuna eskertzeko”

Komunikabideak esan eta esan ari dira aurten Olentzero ez dela hain eskuzabal ibiliko. Egun hauetan kontsumoak gora egiten duen arren, ezin ukatu hezurretaraino sartu zaigula beldurra. Horrek kalte egin diezaieke Azkoitiko merkatariei. Baina Bittor Larrañaga, Herrixen Elkartearen burua, eta bertako teknikari Olaia Zabaleta baikor agertzen dira. Esku bete proiektu dute aurrera begira. Elkartea ekainean sortu zen. Orduan 122 bazkide ziren guztira. Gaur egun, 142 dira.

Euren ahaleginean bidelagun dute Azkoitiko Udala hasieratik. Besteak beste, laguntzak eman zizkien merkatariek teknikari bat izan zezaten beren zerbitzura. Herrigunea "aire libreko merkatal-gune" zabal bat eraikitzeko duen helburuak ere dendarien interesei erantzuten die. Ildo horretan, Udalak haien iritzia kontutan hartu du kaleak oinezkotzerakoan, hasieran zuen planteamendua aldatuz. Dendariek hala eskatuta TAO (OTA) bidez araututako hiru gune jarri ziren, aparkalekurik falta ez zedin.

Bittor Larrañaga eta Olaia Zabaleta

Herrixen Merkatari Elkartearen burua eta teknikaria

Asko nabari al da mostradore atzetik krisia?

Bittor: Krisia ez, jendearen beldurra bai.

Olaia: Denetarik entzuten da, batzuk baietz diote.

Bittor: Gabon aurreko egunak beti izaten dira txarrak, ez abendua, baina bai urria eta azaroa. Irailean haurrak eskolara hasteak gastu handia dakar eta beti “iraileko aldapa” aipatzen den arren, nik uste dut benetako aldapa urrian eta azaroan bizitzen dugula.

Olaia: Azaroan, adibidez, Herrixen txartela zutenei %5eko deskontua egin zitzaien erosketetan elkarte barruan dauden saltoki guztietan eta mugimendu handia ibili zela diote dendariek.

Bittor: Jendeak Gabonetako opariak erosteko aprobetxatu zuen.

Horrek zer esan nahi du jendeari %5 gutxiago ordaintzea asko inporta zaiola ala deskontua egiten den unetik jendea errazago sartzen dela dendara?

Olaia: Amu bat da, bai. Hori gehiago. Orain, adibidez, abenduan hasi eta otsailera arte hilero 600 euro zozketatuko ditugu. Herrixen txartelaren erabiltzaileei puntuak emango zaizkie zozketarako.

Bittor: Eta irabazleari diru hori txartelean sartuko zaio berriro ere herriko dendetan gasta dezan.

Txartela ateratzearekin asmatu duzue, ala?

Bittor: Egia esan, dendariak gustura daude txartela ateratzearekin zeren, batik bat, erropa dendetan diruz ordaindu beharrean gehienetan txartela erabiltzen da eta %1 eta %3 artean ordaindu behar izaten zioten banketxeari. Merkatariak elkartu zirenean, ordea, banketxeak eskaintzak egiten hasi ziren eta orain %0,50eko interesa ordaintzen dute. Dendariek asko eskertu dute. Nik harategia daukat eta normalean diruz ordaintzen bada ere, azaroan %5eko deskontua egin genuenean, askok txartelarekin ordaintzen zuten. Orain, diruz ordain daiteke eta txartela erakustearekin nahikoa da zozketetarako.

Gabonetarako ere pentsatu duzue zerbait. Kontatu.

Olaia: Hilaren 24an, Eguberri egunean, Plaza Nagusian, Balda Plazan eta Julio Urkixon hiruna danbolin ipiniko ditugu gaztainak erretzeko. 500 kilo gaztaina erreko ditugu goizeko 11:00etatik aurrera. Gainera, Olentzerok bisitatuko gaitu eta batetik bestera ibiliko da. Azkoitiarrek herriko merkatariengana duten leialtasuna eskertu nahi dugu eta gaztainak banatuz egingo dugu.

Orokorrean hartuta, herriko saltokien etsairik handienak merkatal-gune handiak al dira?

Bittor: Horren aurrean mugitzen gara gehien. Baina uste dut geure bezeroak ditugula. Azkenean, jendeak eguraldi txarra dagoenean egiten duena da horrelako guneetara joan eta eguna pasa erosketak eginez.

Olaia: Herrian eskaintza egoki bat egon behar du jendea bertan geratzeko.

Eta hori nola egiten da?

Bittor: Hori da asmatu beharrekoa. Norbaitek ideiaren bat baldin badu buruan, gu irekita gaude.

Zer irizten diozue Udalak herrigunean “aire libreko merkatalgune” bat eraikitzeko duen asmoari?

Bittor: Oso ondo. Hori da helburua. Baina horrek ondo kokatutako eta doako aparkaleku bat eskatzen du. Lehenengo aparkalekua, eta gero hitz egingo da kaleak oinezkotzeaz. Guk proposatu genuen oinezkotzea baina aparkalekuak egin eta gero. Gamundin aparkalekuak egiteko asmoa badado baina beste hiru urte pasako dira gutxienez. Oraindik proiekturik ere ez dago, proiektuaren zirriborroa da dutena. Goizetan plaza irekitzea nahiko genuke, ordainduta bada ere, eta horrela denda aurreetan ez luke inork autorik aparkatuko. Kale Nagusiak ere igande goizetan zabalik egon beharko luke, gutxienez 11:00k aldera arte, jendea hasi arte.

Edozein modutan, Azkoitian dendak irekitzen ari dira. Seinale ona da.

Olaia: Bai, horregatik da zaindu beharreko gai bat. Oztopoak jarri beharrean, erraztasunak eman behar zaizkie, ez dezaten kaleek bizirik galdu.

> “Azkoitia beste herri batzuen aldean ondo dago, baina noski, horrelako egoera baten aurrean, gastatu beharrean aurrezten ahalegintzen zara.”

Duela gutxi egunkarietan albiste izan zen Donostian taberna batean prezioak jaitsi zituztela jendeak kontsumitzen jarrai zezan. Ez da erabaki solidarioa besteekiko, ala?

Bittor: Aurretik asko irabazten zuelako bajatuko zituen. Prezioak estutzen ibiltzen gara denok lehiakortasun handia dagoelako.

Aurreko udan Oñatiko Udalak 600 euro eman zizkien abuztuan irekitzea erabaki zuten merkatariei. Prest zaudete oporretan ireki edo ordutegia zabaltzeko?

Bittor: Eusko Jaurlaritzakoekin eta, egiten ditugun bilera guztietan hori ateratzen da. Ordutegiaren kontua, hain zuzen. “Larunbat arratsaldeetan ireki behar duzue”. Nik uste dut jendeak gaur egun lana egiten duen moduan, malgutasuna duela eta nahi duena etortzen dela. Beste kontu bat da, noski, lanetik atera eta gaueko bederatziak arte kiroldegian ibiltzen bazara… Eta Oñatiko ekimenari buruz, berriz, dirua jaso zutenei ongi etorriko zitzaien irailean oporrak egiteko. Ez dut uste konponbidea denik.

Negarti fama duzue merkatariok. Arrazoiarekin?

Olaia: Noski, orain jendeak ez daki urri eta azaroko beherakada puntuala izan den edo krisiaren eraginez jarraitu egingo duen. Sektore guztietan bezala. Baina jendea lanerako gogotsu dago. Gure Gabonetarako leloa da “Gozatu, gastatu eta ondo pasa herrixen!”.

Bittor: Azkoitia beste herri batzuen aldean ondo dago, baina noski, horrelako egoera baten aurrean, gastatu beharrean aurrezten ahalegintzen zara.

Olaia: Udalari eskatuko genioke ekintza gehiago antolatzeko.

Bittor: Hori da, zeren azkenean jendea kalean baldin badabil sartu egiten da dendara.

Beste herrietako merkatari elkarteekin baduzue harremanik edo jarraitzen duzue haiek egiten dutena?

Olaia: Ia denak gauza bera egiten dugu: Txartelak, sariak, zozketak… Zerbait eskaini herrian erostearen truke.

Merkataritza Ganberakoak-eta hitzaldiak ematen dituztenean teoria ematen dute, baina praktikan haien aholkuak baliagarriak al dira herri txiki batean?

Bittor: Norberak ezagutzen du hobetoena bere negozioa. Lehen esaten ziguten espezializazioan zegoela irtenbidea. Ni ez nago ados, zeren horrekin mugatzen ari zara. Kapritxoetatik ezin da bizia atera, egunerokoa behar da. Eta orain, berriz, dibertsifikazioa aipatzen digute. Eta dibertsifikazioaren barruan, kalitatea.